


**BIZITEGI ERAIKINA**  
C MAILA

**MENDEURREN PLAZA 5**



**Egilea eta data: Roberto Garcia Ochoa; 1922**

**Deskribapena**

Eraikinak 9,3 x 15,5 m-ko sakonerako orubea okupatzen du. Eskailera albo batean du eta oin bakoitzeko bi etxebizitza daude, horietako bakoitza fatxada bakar batera orientatua. Hau ere hormigoiz eraikia, behe oina eta sei goi oin ditu. Azkeneko oinaren zati bat mantsardatua, jatorrian. Gainera, atzealdean jasodura atzeraemana du. Estilistikoki 6 zenbakian kokatutako ondoko eraikinarekin parekatua. Une horretan, korronteez aurreko faseetako jarraibide zehatzak ez zituzten hainbeste errespetatzen. Eraikina duela gutxi hustu eta berreraiki dute.

**Babes erregimena.**

1.- Babesteko erregimen orokorra.

Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berariazko babes erregimena.

A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlandua, entokadurak eta zeramikak.

C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurak ez dira onartuko.

D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez, hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari loturiko salbuespenen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.